



## PROTAGONISTAREN ASTEA 2015 – 16 ikasturtea

Duela ikasturte batzuk maleta eta motxila ibiltaria izeneko jarduera jarri genuen martxan gure ikastolan. Gure maletak eta motxilak etxez-etxe ibili izan dira, eta bertan denetarikoz kontakizunak eta objektuak ekarri dituzte gure ikasleek bere gelakideekin konpartitzeko asmoz. Haurrak, euren gelatako protagonistak sentitu izan dira astebetetz.

Aurten bestelako izaera bat eman nahi izan zaio jarduera edo ekintza honi, eta lehen Maleta eta Motxila Ibiltaria zena, **Protagonistaren astea** deitzea pentsatu dugu. Baina zergatik? Haurra astebetetz bere gelako protagonista izango delako eta adin bakoitzean berari buruz gauza gehiago ezagutzeko aukera izango dugulako: nolakoa den, zer duen gustuko, bere zaletasunak, bere deskribapenak,... HH3tik HH5era bitarteko horretan jarduera desberdinen bitartez pixkanaka ezagutzen joango gara.

Hauek izango dira beraz, Protagonistaren Astea deritzon jarduera honen helburu nagusiak:

- Ikaslearen autoestima lantzea, bere identitatea eratzen ari den garai honetan modu positibo batean eraikitzen laguntzeko.
- Gelakook gure ikaskidea gehiago ezagutzea, guk ere bera positiboki baloratzeko eta besteekiko interesa eta enpatia lantzeko asmoz.
- Norberak bere burua ezagutzea eta hobeto ulertzea, norberari buruzko hausnarketa eginez, alde positiboak indartuz bereziki.
- Familia eta eskolaren arteko harremana sendotzea eta parte hartzea areagotzea.

# JARDUERAK

## HH3

- Motxila Ibiltarian etxetik ekarritako *3 objektu kuttunak* gelakideei aurkeztu.
- *Eskuen aztarnak* egin eta gelakideekin argazkia atera.
- Ostiralean **argazkia eta eskuen aztarnak** etxera eraman.

## HH4

- Motxila Ibiltarian etxetik ekarritako objektu kuttunak eta "*Txutxumutxuen liburua*" gelakideei aurkeztu
- *Protagonistaren silueta* egin eta denen artean osatuko dute (aldira teknika desberdinak erabiliz). Ondoren Protagonistak dituen *aurpegiko ezaugarriak* aztertuko ditugu bere aurpegiaren irudia silueta itsatsi aurretik. Azkenik gelakideek siluetaren orria sinatuko dute.
- Ostiralean **silueta** eramango dute etxera.

## HH5

- Izar Liburutegitik hartutako *ipuin bat kontatuko* diete gelakideei etxekoekin prestatu ondoren.
- *Gurasoen Txikitako pasartearen liburuxka*: Familiako norbaitek izandako abentura kontatzeko balio duen liburuxka. Etxekoak gonbidatuta daude astelehen arratsaldean eurei gertatutakoa guri gelan kontatzeko.
- *Protagonistaren neurria*: eskuekin neurtuko dugu.
- *Pelutxea* Protagonistaren etxean egongo da egun batzuetan. Pelutxearen Egunerokoan kontatu beharko dizkigute egun horietan Protagonistaren etxean gertatutakoa.
- *Protagonistaren kutxa*: Protagonistari buruzko mezu positiboak modu anonimoan idatziko dituzte gelakideek protagonista den aste horretan. Ostiralean denen mezuak irakurriko dira. Protagonistak mezu hauek eramateko sobrea apainduko du.
- Ostiralean **protagonistaren neurria** eta **gelakideen mezuak** eramango dituzte etxera.